



Egia, Justizia, Erreparazio eta Ez Errepikatzeko Sistema Integralaren esparruan Kolonbiako gatazka armatuaren kausak, erantzukizunak eta ondorioak hiru urtez ikertu ondoren, Kolonbiako Egiaren Batzordearen Azken Txostena aurkeztuko dugu Euskadin eta Europa osoarentzat.

Azken Txostenak, Egiaren Batzordeen historian lehen aldiz, Erbesteari buruzko kapitulu bat du. Horretan, giza eskubideen eta Nazioarte Zuzenbide Humanitarioaren urraketa gisa aztertzen dute Erbestea eta milaka pertsona beste herrialde batzuetara migratzera behartu dituzten dimentsioak, kausak eta indarkeria-patroiak aurkezten dituzte. Gainera, pertsona horiek pairatzen dituzten ondorioak eta inpaktuak eta "errotzetatik" sortu behar izan duten erresistentzia ere erakusten dituzte, Carlos Martín Beristain ordezkariak azaltzen duen bezala.

Kolonbiako Egia Argitzeko Batzordeak, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren, Hegoa Institutuaren, Kolonbia Mahaiaren eta Euskadiko Nodoaren laguntzarekin Batzordearen lanaren alde, gonbidatzen du *Kolonbiako Egiaren Batzordearen Azken Txostena European aurkezteko ekitaldira*, Bilbon uztailaren 6an, baita *Del otro lado* dokumentalaren aurkezpena ere, uztailaren 5ean.

Kolonbiako Egiaren Batzordearen Azken Txostenaren aurkezpena European

Bilbo, 2022ko uztailaren 5ean eta 6an

Egitaraua

Uztailak 5, asteazkena

Lekua: Golem Alhóndiga Auditorioa

18:00 *Del otro lado* filmaren aurkezpena eta proiektzioa

19:40 Foroa: Iván Guarnizo, Jairo Guarnizo, Güerima (FARC-EPren borrokalari ohia, bake akordioaren sinatzailea)

Moderatzailea: Carlos Martín Beristain (Kolonbiako Egiaren Batzordea)

Sarrera librea auditorioa bete arte

Uztailak 6, asteazkena

Lekua: Bizkaia Aretoa, Mitxelena entzunaretoa. Abandoibarra 3

15:30 Akreditazioa

16:00 Irekiera

16:10 Azken Txostenaren aurkezpena
Carlos Martín Beristain eta Alejandro Valencia ordezkarien eskutik

17:00 Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabali Azken Txostena ofizialki ematea

17:15 Erbestearekin konektatuz.
María Ubilerna Sanabriaren monologoa:
Las madres de Soacha

17:30 Kapituluaren aurkezpena:
Las verdades del Exilio: La Colombia fuera de Colombia. Carlos Martín Beristain ordezkaria testigantza emaileekin solasean

18:30 *Kolonbia aurrera*
Esku-hartze artistikoa: Valentina Parra Delgadillo (Mono Nuñez 2017 Jaialdiaren irabazlea)

19:00 Itxiera eta aperitiboa

Uztailaren 6ko aurkezpena bertaratzeko asmoa baieztatzen helbide honetan: informecev@hegoa.info